

rrotza agintzen du. Mundu osora zabaldurik dago bahaismoa. A.E.B.etan, e.b., 40 mila bat lagun badira Baha'i-ren jarraikariak. Haifa dute beren "hiriburua". 2 milioi inguru dira munduan. Gaur egunean Iranen erasopean bizi dira.

Baianismoa

Michel de Bay (1513-1589) Leuven (Louvain)eko teologoaren *irakasbidea. Horren ustez giza izatasunari berari dagozkio eta horrekin loturik daude: Jainkoaganako joera, Horren legea beteaz; Jainkoarekiko *elkartasuna eta horrekin baterako dohainak: *betiko bizitza ere bai. Jatorriko bekatuaren bidez, gizakiaren izatasun hori erabat okertu da, eta grina-irritsek hartuta dago; gizakiak zuen benetako libertatea ezereztuta gelditu da. Graziaren egitekoa zera da: jatorriko izaera gizakiari itzultzea, eta horren b ondotean *jainkozko maitasunak maitasun lurkoi bekatzukoa gainditzea.

*Jansenismoari bidea ireki zion baiamismoak. Batak eta besteak San Agustinen irakasbidea adierazi eta zabaldu nahi dute.

Ik. Jatorrizko bekata; Libertatea; Jainkoaren grazia.

Bakanalak

Bako edo Dioniso jainkoaren ohorez erromatarrek ospatzen zituzten jai orgiastikoak. Gaez ospatzen zituzten. Erromako senatuak jaiok debekatu eta gogor eraso zien horietan esku hartzen zutenei; Tito Livioaren esatez, 7.000 lagunek jasan zuten heriotza, kastigutzat.

Ik. Orgia.

Bakea

Erljiozko helburua eta amespurua adierazteko sarritan erabiltzen da bakea kontzeptua. Itun Zaharrean Mesiaren itxaropidearen edukina da bakeak, kristautasunak bakezko erreinutzat itzuli duena. *Justifikazio edo *zuzentasuna eta bekaturtik ateratzea Jainkoarekin eta lagun-hurkoekin bakeak egitea eta adiskidetzera gisa adierazten du teologiak. Hildako zintzoaren egoera adierazteko ere bakea erabili ohi da: R.I.P. (=bakean izan dezala atsedean) irartzen dute hilarritan eta hilen oroigarritan. Gerrak kendu ezinean, erljiozko bakeak barne-bakearen esanahia hartzen du sarritan.

Gutxitan iristen da inolako erljio, gerra erabat baztertzerako bakearen amespuruaren izenean. Eta erljio-gerrateak ere ugarriak izan dira historian zehar. Areago: batzutan bakearen amespuarekin batera gerrarena agertzen da erljioetan; biek dute or-

duan beren jainkozko lekukoa: Bakearen jainkoa (Greziako Irene edo Erromako Pax) eta gerraren jainkoa (Erromako Marte edo Freyr germaniarra).

Erljioetan gerrak bere lekua handia eduki badu ere, bakearen balioa nagusitu izan da eta gerraren ondorioak mugatzeko neurriak ere jarri izan dituzte erljioek: hala nola, kristautasunak "Jainkoaren bakea" edota "Jainkoaren tregoa". Beren garrantzia dute, baita ere, gerra-bukaerako erljiozko ospakizunak eta erritoak: armak uztea edota etsaiarekin erritoko bazkaria jatea, etab. Bakearen kontzeptuak hiru aldetara jotzen du: gizabanakoen edo gizataldeen artekoa, norberaren barneko bakea, Jainkoarekiko bakea. Bestalde, gizadiaren lehen alditako bakearen mitoaren eta azken alditako edo azkenburuko bakearen itxaropenaren artean jarri ohi dute erljioek mundu honetako bikerik gabeko egoera. Mezakoa ere betidanik izan du garrantzia elkarri bakea eskaintzearen erritoak. Kristoren *salbamena Jainkoarekin gizon-emakumeak bakeraztea gisa ulertzen du teologiak.

Bakearen sinboloak dira: hegaztietan *usoa eta koloretan zuria.

Ik. Erljio-gerra; Jainkoaren tregoa.

Paulo Agirrebaltzategi

Bakekuntza

Funtsean bekatuak barkatzea eta bekataria Jainkoaren aurrean bakean jartzea esan nahi du.

Kristau-teologiako kontzeptua da, Jainkoaren eta gizakien artean bakeak egitea edo adiskidetzera adierazten duena. Kristausinesmenaren arabera, Kristoren heriotzaren bidez gertatu da funtsean hori. Fededun bakoitzari hori esleitzeak modua ezberdinki ulertzen dute katolikoek eta protestanteek.

Espiazioak Jainkoa baretzea esan nahi badu, bakekuntza areago doa, eta gizakia Jainkoaren adiskide egitea adierazten du. Ebanjelioaren arabera, Jainkoarekiko bakekuntzak eskakizun moralak ezartzen dio fededunari: *lagun-hurko iraindu eta haserretuarekin bakeak egitea, halebria.

Ik. Bakea; Espiazioa; Adiskidetasuna.

Bakezaletasuna

Ik. Pazifismoa.

Bakezko laztana

Apaizak jaunartze aurretik aldaerako apaizkideei eta ministroei ematen diena, anaiairteko *elkartasunaren seinaleztat eta